

DOT

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Ikasleak izanik, gertutik bizi dugu azterketek ikasleengan eragiten duten estresa eta ikasketek gure eguneroko bizitzan duten pisua. Askok arazo izaten dute apunte falta, apunte txukunak egiteko gaitasuna edo azalpen on bat jasotzekoa. Sarritan gainera, klase bat galtzeak edo eta gaixotzeak atzerapen handiak suposatzen ditu.



Horregatik, Dot aplikazioa sortzea erabaki dugu. Hau instalatzen duenak, edozein apuntetarako sarrera izango du edonon eta edonoiz. Gure asmakizun honen hornitzaile nagusiak, ikasleak izango dira; beraiek igoko baitituzte euren apunteak sarera. Gainera, erabiltzaileek apunteak batetik bestera bitarteko izarrekin ebaluatzeko aukera izango dute; honela, izar gehien lortu dituzten apunteak azalduko dira orriaren gainaldean. Bestalde, irakasleek apunteetarako sarbidea izateaz gain, iruzkinak idazteko aukera ere izango dute, apunteen zuzentasuna bermatuz horrela.

Laburpen edo eskemak egiteak lan handia suposatzen du eta badakigu arrazoi ezberdinengatik ezer gutxi edo ezer ere egin ez duten batzuk aprobetxatzeko lan hau hartzeak ez duela jende asko erakartzen. Horregatik, hiru hilabetero, hoberen ebaluatuak izan diren apunteen egileei sariak banatuko dizkiegu.